

## 13. Argazki Lehiaketako oinarriak

### 1.- Partehartzaileak:

Ganzabal Mendi Taldeko edozein bazkidek hartu ahal du parte lehiaketa honetan.

### 2.- Gaiak:

\_ Mendia eta natura orokorrean.

### 3.-Lanen aurkezpena:

Gehienez argazki 2 aurkeztu ahal izango dira autore bakoitzeko.

Originalak argazki digitalean aurkeztu beharko dira, ondorengo baldintzak beteaz: Argazkien formatua kalitate handiko JPG izango da, 254 ppp-ko bereizmen eta 3000 x 3000 megapixel-eko tamainarekin gutxienez eta 3000 x 4000 megapixel-eko tamainarekin gehienez.

Argazki bildumarekin batera testu fitxero batean (DOC edo TXT formatoan), egilearen izena, parte hartzen den gaiaren izenburua, titulua eta non atera den jarri beharkoda. Argazkiak CD - DVD edo posta elektronikoz jasoko dira.

Argazki digitalak, Taldeko egoitzan entregatu edo ondorengo helbide elektronikora bidali ahal dira ([argazkilehiaketa.ganzabal@gmail.com](mailto:argazkilehiaketa.ganzabal@gmail.com)). Hauen entregatzeko era edo formatoa edozein izanda, oso ondo identifikatuta egon beharko da.

**Ez dira baliagarriak izango beste lehiaketa batean irabazleak suertatuko argazkiak.**

### 4.- Onarpen epea:

Epea 2019ko urriaren 9an amaituko da. Epea luzaezina izango da.

## **5.- Sariak:**

### **- 2020ko Egutegia:**

12 argazki izango dira sarituak, Ganzabal Mendi Taldeak 2020. urtean DIN A-3an orma egutegi bat egiteko erabiliko duena, salmentan jartzeko asmoz.

Aukeratutako argazki irabazle bakoitzak sari moduan egutegi bat jasoko du eta 20 € Ganzabal Mendi Taldeak 2020an egingo dituen ekintzengatik trukatzeko.

### **- Sari popularra:**

Aurkeztutako argazki guztien artean, bat aukeratuko da Ganzabal Mendi Taldeak publikatuko duen 2020ko agendako portada izateko

Aukeratutako argazkia 50 € lortuko ditu Ganzabal Mendi Taldeak 2020an egingo dituen ekintzengatik trukatzeko.

## **6.- Epaimahaia:**

Epaimahaian mendi taldeko zuzendaritzak aukeratutako pertsonak izango dira, mendizaleak eta argazkigintzan adituak. Epaia apelaezina izango da eta edozein gertakizun egonez gero, epamahiak erabakiko du zer egin.

Epaimahiaren emaitzak eta sariak behar den bezela jakinaraziko den data batean emango dira, ekitaldiari seriotasun bat emateko.

## **7.- Oharrak:**

•Partehartzaileen ardura da erabat, aukeratutako lanen gainean hirugarren batek eskubiderik ez izatea eta, era berean, irudi eskubideez egon daitezken erreklamazioei erantzutea. Hori bermatzeko, dokumentu bat sinatuko du.

•Antolatzaileek argazki paperera zehaztu gabe dagoen original kopurua pasatuko dute, egon daitezkeen erakusketetarako. Epaimahiaren balorazioaren ondorioz lortutako puntuazioa kontutan hartuko da handitik txikira.

- Aurkeztutako lan guztiak, Ganzabal Mendi Taldeak antolatutako edo zabaldutako ekintzetan erabili ahal izango dira; beti ere, egilearen izena aipatuz.
- Ganzabal Mendi Taldearen artxiborako geldituko dira lan sarituak.
- Lehiaketan parte hartzeak oinarriak erabat onartzen direla adierazten du.
- Epaimahia edo antolatzaileek jarritako baldintzekin bat ez datozen argazkiak alde batera utzi ahalko dituzte.
- Antolatzaileek, oinarri hauetan aurreikusten ez diren baldintzak, haien irizpideen arabera konpontzeko ahalmena izando dute.